



### INFORMAZIO OHARRA: ERDI-PROFESIONAL KONTZEPTUAREN ARGIBIDEAK

Azaroaren 6ko lehendakariaren 38/2020 DEKRETUaren arabera, zeinaren bidez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko

“Taldeko edozein kirol-jarduera eteh egiten da, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Salbuetsita daude, eta egin daitezke lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak”.

Hau da txapelketa Profesionala:

Futboleko Santander eta Smartbank Ligak eta saskibaloiko Endesa Liga (ACB). Baita Liga hauetan parte hartzen duten taldeen nazioarteko lehiaketak ere”.

Hau da Txapelketa erdi-profesionala:

“Egutegi ofizialeko estatuko eta nazioarteko lehiaketa ezberdinak eta baita Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketak ere; hauek guztiak kategorian absolutuan.

Atal honetan sartzen dira ere kirol autoktonoen goreneko lehiaketak maila absolutua”.

#### ERDI-PROFESIONAL KONTZEPTUA ARGITZEA:

- Dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko federazioaren **egutegian argitaratuta dauden txapelketak dira.**
  - EZ DIRA ERDI-PROFESIONALTZAT HARTZEN: Dagozkien Euskal Federazioaren egutegian lehiaketa argitaratuta ez dutenak.
- **ERDI-PROFESIONALAK dira:** AUTONOMIA ERKIDEGOAN, ESTATUAN EDO NAZIOARTEAN egiten ari diren LEHIAKETA profesionaletan edo erdi-profesionaletan KATEGORIA ABSOLUTUAN parte hartzen duten beheragoko kategoriako kirolariak (derrigorrezko eskola adinean inoiz ez).
- KATEGORIA ERDI-PROFESIONALAREN ZIURTAGIRIAK. **Euskal federazioek** bakarrik eman ahal izango dituzte kirolari horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak.
  - Aurreko puntuetan zehaztutako irizpideak betetzen ez dituzten kirolariei ziurtagiriak ematen dizkien federazio orok EZ DU BETEKO 38/2020 Dekretua.
  - Federazio horiek ematen ez dituzten ziurtagiri guztiak EZ DIRA BALIOZKOAK IZANGO; beraz, ziurtagiri horiek ematen dituen erakundeak edo pertsonak EZ DU BETEKO 38/2020 Dekretua.
- PROFESIONALTZAT edo ERDI-PROFESIONALTZAT hartzen ez diren kirolariak **banakako entrenamenduak bakarrik egin ahal izango dituzte bizi diren udalerrian eta ondoko udalerrian.**

Aipatutako azaroaren 6ko 38/2020 Dekretua indarrean dagoen bitartean aplikatuko dira neurri horiek guztiak.



Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 1a.

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA